

Mudo-Drogot

Orain dela ia 30 urte, dakigunez, Mudo Drogotek zinetan ikus ez daitezkeen pelikulak ermuarrei eskeintzen hasi zen. Orain, Arantzi Perosanz eta Rikar Txabarri dira horren arduradunak.



- Zein urtetan sortu zen taldea?

Data zehatza ez dugu ezagutzen, baina badakigu 1980. urtearen bukaera aldean izan zela.

- Zenbat kide zarete?

Denboran zehar jende asko pasatu izan da taldetik, garai batzutan taldea izan beharrean pertsona bakar baten esku egon da zinekluba. Momentu honetan 2 kide gara, baina baditugu laguntzaile batzuk, zenbait ziklotaz arduratzen direnak. Adibidez Rosa, martxoko (emakume zuzendariak) eta ekaineko (gay eta lesbianen harrotasunaren nazioarteko eguna) zikloak antolatzen ditu ermuko emakumeen elkartaren ordezkari modura. Herriko beste kolektibo batzuk ere parte hartzen dute noizean behin beste ziklo

batzuk antolatzen.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Normalki zine areto gehienetan ikus ez daitezken filmak ikuskatzea da helburu nagusietako bat, hau da; zine independentea, festibaletako filmak... Beste helburuetako bat filme hauek JBAan (jatorrizko bertsioa azpigituluarekin) ikuskatzea da, horrela bikoizketarekin gal daitezken xehetasun asko hauteman daitezke. Helburu nagusia, zineaz gozatzea da.

- Zein maiztasunekin biltzen zarete?

Ez dugu leku finkorik ezta egun finkorik biltzeko, maiz ikusten garenez edozein momentu aprobetxa dezakegu filma desberdinei buruz hitz egiteko eta baita egitarauak prestatzeko.

- Urtean zein ekitaldi egiten dituzue?

Ez dugu ekitaldi berezirik normalean, baina urtero errepikatzen ditugu lehen aipatu ditugun martxoko eta ekaineko zikloak. Saiatzen gara ere, hilabete bakoitzean gai berdin bati buruzko filmak ikuskatzen, adibidez fantasia eta beldurrezko zine zikloa, ziklo erotikoa, dokumentalak, komedia independentea...

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Ez dugu elkartoki finkorik, baina saiitzen gara zineklub filme emandietara joaten, horregatik gurekin harremanetan jartzeko leku proposena Lobiano da, ostegunetan, filma hasi aurretik edo bukatu ondoren.

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

san antonio

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOTEGIA

CERVECERIA

ZYTik

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna